

Noaia!!



Itxura berria izango du
Santueneak



AZAROAK 5 OSTIRALA
"Debekatua dago oroitzea", dokumentala



AZAROAK 7 IGANDEA
"Ornitorrinkus", ikuskizuna



AZAROAK 6 LARUNBATA
"Prest gaude!", antzerki saioa


Kulturaldia, bete-betean

Marije
Arropa denda



Exkebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL

PSU
serigrafia



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



Lourdes
Larrana

FOTODEPILAZIOA

Besapeak 30€tik
Ezpaina 15€tik
Ingleak 45€tik
Hanka osoak
125€tik
Hanka erdiak
80€tik

Tel: 943 362 887
M: 619 060 685
lourdes@esteticalourdes.es
www.esteticalourdes.es



I. URRUZOLA ARROZTEGIA

**Konfiantzazko arotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera**

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea



Oria etorbidea 4, behea, LASARTE
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371 200 • 610 413 131

Albistea iruditan!!

Udarregi ikastola handitzeko aurrerapausoa eman du udalbatzak

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Agerialde izeneko lur eremuaren azalera handitzeko Aldaketa Puntuala hasieraz onartu zuen udalbatzak gehiengo, urriko osoko bilkuran. Hartutako erabakiari alegazioak aurkezteko hilabeteko epea izango da orain. Modu honetan, Udarregi ikastolaren handitze egitasmoaren bidean, pauso bat gehiago eman du udalbatzak.

Gehiengo osoaren onarpena behar zuen erabakiak eta proposamenak bozketan behar beste babes jaso zuen; gobernu taldeko eta Aralarreko udal ordezkariena hain zuzen. EAJ-PNV eta Alkarbide udal taldekoak abstenitu ziren.



IKASTOLA HANDITZEKO BIDEAN, LEHEN URRATSA BAINO EZ DA IZAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkari koordinaatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiet, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

PATXI SEGUROLAREN INGURUKO MOZIOA **5. OR.**

SANTUENEAK ITXURA BERRIA IZANGO DU **6. OR.**

ARTISAU AZOKA, IRUDITAN **9. OR.**

KULTURALDIAK EKARRIKO DUENA **10. OR.**

BURUNTZAZPIK EGOITZA BERRIA DU **15. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herra!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, I.ESK 943372937 • 659602789

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Golz argi etxea 37, KALEZAR

ERRAZKIN
Igeltzortza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K/ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL



NEREA ZINKUNEGI

Negozio Borob-Hila

Jantzi ditugu lorez kanposantuak. Aldameneko marmol hotzei zehar begiratu bota diegu guk ekarritako koloredun naturalak okasiorako modukoak ote diren jakiteko. Trapu zahar bat esku batean eta garbiketarako produktua bestean, dirdira atera arte emango diogu alabastroari eta eskuin aldeko goiko ertzean dagoen argazkiari, dena txukun egun handirako. Egun goi-bela aurtengoan, zamarra luze eleganteak, aurpegi serioak, bostekoak, besarkadak, musuak eta bazkaria sozidean. Nork ez du hildakorik inguruan?

XIII. mendez geroztik omen dator Santu Guztien Eguna ospatzeko ohitura eta munduko hainbat bazterretan egun hau pasatzeko modu ondo ezberdinak aurki daitezke. Mexikon, adibidez, hilerrietara doaz familiartekoak jai giroan eta hildakoen hilobi gaintan kolorezko mantelak zabaldu eta bertan bazkaltzen dute musika eta dantzaz lagundurik, egun pasa alai bat izaten da egun honetako plana, hantxe, hildakoa-

rekin batera.

Madrilen, tipo kolonbiar bati sekulako ideia otu zaio; hildako pertsona edo animalien errautsekin eskulturak egiten ditu enkarguz. Prozesua zera da, Oscar de Julian-ek, eskultoreak, (sakonki kristaua bera, hala dirudi behintzat web orrian irakurri dudana) hildakoaren irudiak, argazkiak, eta gustuko zituen gauzei buruzko informazioa bidaliz gero, bere errautsekin portzelana zuri antzeko bat egin eta eskulturan bihurtzeko gaitasuna du, eta ez hori bakarrik, hildakoaren antza fisikoa izateaz gain, arima ere bertan gordetzen omen dute eskulturek.

Ezinbestean iritsiko zaiguna negozio borobila da gaurkoan eta orain artekoa gutxi balitz Halloween yankiada delakoa sartu digute bazter guztietatik; festa, mozorroak, blodymariak, plastikozko odol arrastoak eta beste hainbat txorakeria. Eskerrak hil ostean denak santu garen.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Urte berrirako taxi tarifa berriak onartu dira

2011n tarifa berriak aplikatuko dizkie taxi zerbitzuak bezeroei. Gipuzkoako Taxien Elkargoak proposatu eta joan den asteko osoko ohiko bilkuran udalbatzak onartu zituenak.

Gipuzkoako Taxien Elkargoak Buruntzaldeko herrietarako, honenbestez baita Usurbilerako ere, proposatutako auto-taxi tarifa berriak onartu ditu udalbatzak, eta aho batez, azken osoko ohiko bilkuran. Tarifa berriak 2011n jarriko dira indarrean. Bi tarifa mota bereiziko dira; bat, lanegunetan goizeko 7:00etatik gaueko 22:00ak arte aplika-

tuko dena, eta bestea, gauero 22:00-7:00 artean eta igande zein jai egunetan, 7:00-22:00 artean indarrean izango dena.

Gastuen araberako tarifak

Tarifak zehazteko 2010 urterako auto-taxi baten ustiapen kostuak zenbatekoak diren aintzakotzat hartu dira. Erreferentzia moduan, gai honi lotuta egin den ikerketa baliatu da. Udalbatzak onartutakoak behin betirako izaera izan dezan, erabakia Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari helaraziko zaio. Onespenez

berri emango zaie, besteak beste, herriko taxi titularrei eta Gipuzkoako Taxi Elkargoari.

2011 urterako tarifak

Lanegunetan (7:00-22:00):

- Abisaria: 3,1919.
- Egindako kilometroa: 0,9963.
- Itxaron ordua: 19,1191.

Igande, jai egun (7:00-22:00) eta gauetan (22:00-7:00):

- Abisaria: 3,1919.
- Egindako kilometroa: 1,5960.
- Itxaron ordua: 30,0473.

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Patxi Seguirolaren espulzio arriskua dela eta, mozioa onartu du udalbatzak

Datozen asteotan beteko du Patxi Seguirola herritarrak frantziar estatuan jarri zioten espetze zigorra. Kartzelatik irten ostean, espainiar estatura espulsatua izan daitekeelakoan, Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak mozioa aurkeztu du. Joan den urriaren 26ko osoko ohiko bilkuran irakurri eta udalbatzak gehiengoz onartu zuen.

Joan den asteko udalbatzarrean onarturiko testuan Patxi Seguirola aske uztearen inguruan aipatzen denez, "oso litekeena da estatu espainolera espulsatua izatea. Antzeko kasuetan egin dutena kontuan hartuta, seguruenik gure herrikidea polizia espainolaren eskuetan utziko dute eta aukera horrek bereziki kezkatzen gaitu". 1994ko ekainean Usurbil eta inguruko herrietan izan ziren atxiloteten ostean, herria utzi zuen Seguirolak. Atxilotu gehienek tratatu txar edo torturak salatu zituzten, tartean, Enkarni Martinezek, Seguirolaren emazteak. Mozioan gogorazten denez, "Komisaldegitik irten ostean, zazpi egunez ospitalean geratu behar izan zuen".

Gertaeren jarraipena egiteko eskaera

Horren aurrean, Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak udalbatzak jada onartu dituen lau eskaera egiten ditu:

- Seguirola espetxetik ateratzen den egunean, izan daitezkeen jazoeren jarraipen estua egitea.

- Atxilotua izango balitz, Udalak bere egoeraz informatzeko tramite guztiak egin ditzala berehala.

- Kasu horretan, habeas corpus prozedura aplikatzeko urratsak ematea berehala.

- Atxiloteta garaian tratatu txar edo anke-



URRIAREN 26AN OSOKO BILKURA EGIN ZEN.

rrik jasoko balitu, Udalak akusazio partikular gisa aurkeztu eta Seguirolaren babes juridikoa bermatzeko bitartekoak jartzea.

Aizpurua kasua, orain gutxi

Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak gerta daitekeenarekiko kezka agertu du, mozioan aipatzen denez, maiz gertatzen direlako halako egoerak. Aurrekari gisa, mozioan Joxe Domingo Aizpurua herritarrak aurtun bizi izan duen egoera aipatzen da. Iazko abenduan Frantziatik espulsatuta eta aske geratu arren, gerora apirilaren 14an Guardia Zibilak berriz atxilotu, Madrilera eramane eta bost egunera kargurik gabe aske utzi zuten berriz.

Bozketa

Gobernu taldeak eta Aralarrek bat egin zuten Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak aurkezturiko mozioarekin. EAJ-PNV eta Alkarbide udal taldeko ordezkariak aurka bozkatu zuten. Alkarbidek gainera, beste testu bat aurkeztu zuen. Seguirola espetxetik irten ostean, gertakarien jarraipena

egitea eskatzen dute eta giza eskubide urraketarik ematen bada, udalbatzarra deitu eta beharrezko neurriak hartzea.

Udala, Jaurilaritza eta Ecoembalajes enpresaren arteko hitzarmen berria

Joan den urriaren 26ko osoko ohiko bilkuran, hondakinen kudeaketa alorreko hitzarmen gehigarri bat onartu zuen udalbatzak. Usurbilgo Udalaren, Eusko Jaurilaritzaren eta Ecoembalajes España S.A. enpresaren artean sinatuko dena. Hondakinen bilketari lotutako baldintza ekonomikoak finkatzen dira hitzarmen horretan. Gobernu taldearekin batera, Aralar eta EAJ-PNV-ko ordezkariak babes- tu zuten proposamena. Alkarbide udal taldeak aurka bozkatu zuen.

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Frutak Barazkiak Etxeko produktuak Izoztuak

Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

teilatuak eta fatxadak

JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

Santueneko frontoi eta eskubaloi zelai berria prest, datorren udaberrirako

Itxuraldatze prozesu betean dago Santuenea hileotan. Ibai-Ondo elkarte ondoan, eskubaloi zelai inguruetan edota auzoko kaleetako batean hainbat berritze lan burutzen ari dira. Ziur aski ordea, begirada gehien erakartzen ari dena eraikitzen ari diren frontoi estalia izango da. Lanek egunerokoan sortzen dituzten ohiko eragozpenen ostean, eta hauts artetik, auzo eraberritua jaioko da. Prozesuaren emaitza, datorren urteko udaberrian ezagutuko da.

Santuenean burutzen ari diren lanei dagokionean, bi eremu nagusi bereizi behar dira. Batetik, Ibai-Ondo elkartearen frontoia eraikiko da, eskubaloi zelaia eraberritu eta bi guneok lotuko dituen pasabide berria egingo dute. Bestetik, auzoko kale nagusietako bat berrurbanizatuko dute.

FRONTOI BERRIA

“24,5 metro luze eta 8,8 metro zabal izango ditu Santueneko frontoi berriak”

Pasabide berria, lotura

Frontoiari dagokionez, egunotan ikus daitekeen moduan, tren karrilak baliatzen ari dira horma indartsu bat egiteko. Fase hau azaroaren erdialderako amaitua egotea aurreikusten dute, Udaleko Hirigintza Sailetik zehazten dutenez. Ezker pareta eta frontisa eraikitzen hasiko dira gero. Lehenbizi, horma erdia hormigonatuko dute, eta hura amaituta, beste erdia.



ESKUBALOI ZELAIK HARMAILA BERRIAK IZANGO DITU.



BERRITZE-LANEN ONDORIOZ PASABIDE BERRI BAT SORTUKO DA.

24,5 metro luze eta 8,8 metro zabal izango ditu Santueneako frontoi berriak. Frontoiak ondoan plaza bat ere izango du. Ibai-Ondo elkarte ondoan eraikiko den gunea, eraberrituko den eskubaloi zelaiarekin lotuko dute, auzoko etxe artetik igaroko den pasabide berri bate-

kin. Eskubaloi zelaiari dagokionean, gunea goitik behera eraberritzeko asmoa du Udalak. Zelai gunea berria, harmaila berriak, eta egun parkea dagoen aldetik bi arranpa ere eraikiko dituzte, aipatu zelaiaren goiko aldea eta ingurua ere berritzearekin batera.

**Zuen
publizitatea
hemen**

☎ 943 360 321
publizitatea@noaia.com

**BENTA
TABERNA**

**Oilasko erreak
Ogitartekoak**

San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Ur sarea eta argikuntza publikoa ere berrituko dituzte

Saneamendu lanak egin asmoz, sauzoko kale nagusietako bat ere berrurbanizatuko du Udalak. Ur sarea eta argikuntza publikoa berrituko dituzte. Udaleko Hirigintza Sailetik gogorarazten dutenez, herrian dagoen uralitazko azken tramuetakoa da aipatu kalea. Behin lur azpiko lanak amaituta, aldaketak lur azalean ere nabarmenduko dira.

Hain zuzen, espaloiak eta bidea maila berean egiteko asmoa baitute, hau da, koskarik gabe. Modu horretan, herritarren irisgarritasuna hobetu eta bermatzea da helburu nagusia. Hirigintza Sailetik gaineratu moduan, orain arte bertan kokatuak zeuden adokin berak baliatuko dituzte kale berria eraikitzeko. Adokinak desmuntatu, garbitu eta berriro jartzeko asmoa dute beraz.

LANEN AMAIERAZ

“2011ko udaberrirako burutu nahi dira frontoi berria, eskubaloi zelaia eta biak lotuko dituen pasabidea”

Proiektu osoa, Udala eta herritarren arteko elkarlanarekin itxura hartzen joan da. Iazko udazkenetik urte honen hasierara arte, zenbait bilkura burutu zituzten, proiektuaren nondik norakoak zehazten joateko.

Lanak bukatzeko aurreikuspenak

Lanen 1. guneari dagokionez:



FRONTOI BERRIA URDAIAGA BIDEAN EGONGO DA.



LANGILEAK ETA GARABIAK NAGUSI DIRA EGUNOTAN SANTUENEAN.

Burutuko diren lanak hauek izango dira: frontoia eraiki, eskubaloi zelaia berritu eta biak lotuko dituen pasabidea.

-Lanen amaiera: 2011ko martxoa edo apirilerako.

Lanen 2. guneari dagokionez:

-Burutuko diren lanak: kaleetako bateko ur sarea eta argiteria publikoa eraberritzea.

-Lanen amaiera: 2010eko urte amaierarako.

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
EIRA KUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

ARRANDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguneko ekitaldietan parte hartzeko gonbita luzatu du Udalak

Datorren azaroaren 25ean gogoan izango den Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren haritik, udalbatzak aho batez mozioa onartu zuen joan den urriaren 26an burutu zen ohiko osoko bilkuran. Ainara Uribe zinegotziak irakurri zuen testuak aipatzen duenez, “aurten, indarkeria sinbolikoa eta ia ikusezinean arreata jarri nahi dugu”.

Hainbat ideia oker transmititzen zaizkiela emakumeei eta indarkeria sinboliko horren adierazgarri diren hainbat ideia, hitz eta mesprezu oraindik naturalizat hartzen direla salatzen du mozioak.

HAINBAT EKITALDI IZANGO DIRA

“Berdintasun sailak antzezlan bat eta film baten proiektzioa antolatu ditu azaroaren 26an”

Idea horiek ikasitakoak direla gaineratzen da, eta testuak ohartarazten duenez, “ondoren datorren indarkeria fisikoa eta psikologikoa justifikatzen du. Horregatik aurre egin behar diogu ideia oker hauei, emakumeen askatasuna orokorrean mugatzen duelako”.

Antzerki emanaldia eta film proiektzioa

Mozio honetan, Udalak berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka, udal politika aktibo, integral eta koordinatua garatzeko konpromisoa hartzen duela dio.

Azaroaren 26an emakumeen aurka indarkeriaren kontrako egunaren haritik, banderola jarriko dute udal txean. Gainera, Berdintasun Sailetik ekitaldia antolatu da Sutegin egun horretarako, antzezlan bat eta film baten proiektzioa. Onartutako mozioan aipatzen denez, “antolatutako egita-



AZAROAREN 26AN, “LOREAREN NAHIA” ANTZERKIA ETA “ANTONIA” PELIKULAREN PROIEKTZIOA IKUS AHAL IZANGO DIRA SUTEGIN.

rauan parte hartzera deitzen ditu (herritarrek), tratatu ona eta emakume-



en autodefentsa eskubidea aldarrikatzen den kanpainaren baitan”.

Animaliak izan eta babesteko udal araudi berria, hasieraz onartua

Legez arriskutsu gisa izendatuak Ldauden edo arriskutsutzat jo daitezkeen animalien udal erregistroa sortzeko asmoa du Udalak, erregistro zenbakia ematen baitzaie, baina gaur egun erregistrorik ez baitago. Animaliak eduki eta babestea arautzen duen ordenantza berria indarrean ere jarri nahi du Udalak.

Urriko ohiko osoko bilkuran, aipatu ordenantza hasieraz eta aho batez onartu zuen udalbatzak. Orain, alegazioetarako 30 lanegunez proposamena jendaurrean ikusgai egongo da. Denbora tarte horretan alegaziorik aurkeztu ez bada, ordenantza behin betirako onartuko da. Hasieraz onartu den honek, aurreko ordenantza indargabetu eta honenbestez, hura ordezkaturiko du, behin betirako onespina ematen bazaio behintzat. Udalbatzak 1999ko urriaren 26ko osoko bilkuran,



ARRISKUTSUAK DIREN ANIMALIEN ERREGISTROA OSATU NAHI DA.

udalbatzak “zakurrak edukitzeari eta leku publikoak errespetatzeari” buruz hasieraz onartu zuena hain zuzen.

Araudi berri honek gai honi lotutako hainbat alderdi jasotzen ditu; hala nola, animalien definizioak, edukitzeko baldintzak, nola jardun animalia abandonatuen kasuan edo eraso egin badu, debekuak, animalia arriskutsuen erregistroa, arau hausteak...

Gozogintzak aparteko arrakasta izan zuen Artisau Azokan

Domu Santu Egunaren tradizioak indartsu dira. Urtero bezala, etengabekoa izan da hildakoak gurtzera hurbildu direnen joan-etorria inguruko hilerrietan. Azaroaren leheneko kontuak. Azken urteotan baina, bestelako ohiturarik ere sustraituz joan da. Artisau Azokarena.

Asteleheneko Artisau Azoka, azken urteotako jendetsuena izan da. Artisautzari lotutako jarduera ezberdinen ispilu izan zen Aitzaga Kultur Elkarateak antolatutako azoka. Eguerdiko 13:00ean, frontoia jendez gainezka zen.

Mikel Laboa plazan ere, hainbat postu jarri ziren.



GOZOGINTZAKO POSTUEK ARRAKASTA HANDIA IZAN ZUTEN, BEREZIKI EGUERDI PARTEAN.



BITXIGINTZA, EGUR-LANA, PINTURA, ESKULTURA... ARTISAUTZA MODU EZBERDINEN ERAKUS-LEIHO IZAN ZEN IGANDEKO AZOKA.

Ostiral honetan Sutegin, “Debekatuta dago oroitzea” dokumentala

Ekainea “Sagarren denbora” aurkeztu ondoren, Joseba Martinezek beste film bat estreinatu zuen Donostiako Zinemaldian: “Debekatuta dago oroitzea”. 36ko gerran, eta gerra ondoren ere, Saturrararen preso egondako emakumeei buruzko dokumentala. Ostiral honetan, Sutegin ikus ahal izango dugu, gaueko 22:30etik aurrera.

Txaber Larreategik eta Josu Martinezek osatu zuten aurtengo Kulturaldian ikusiko dugun ikusentzunezko hau.

Drama handi baten lekukotza
“Emakume asko norbaiten alaba, emaztea edo ama izateagatik kartzelatu zituzten. Askok haurdun zeuden, eta ume



AZARDAK 5 OSTIRALA, 22:30ETAN SUTEGIN.

txiki asko egon ziren kartzelan. Hiru urteak betetzean kartzelatik bidaltzen zituzten umeak, amarengandik banatzen. Drama handi bat dago hor”, Josu Martinezen

hitzak dira. Beraz, 36ko gerrak Euskal Herrian eragin zuen pasarte ilunetako bat islatzea lortu dute “Debekatuta dago oroitzea” izeneko dokumental honetan.

Eta larunbatean “Prest gaude!”, barre egiteko moduko antzezlan

Lakrikun antzerki taldeko Alaitz Olaizola, Gurutze Eizmendi eta Idoia Uranga aktoreekin arratsalde polit bat pasatzeko aukera izango dugu larunbat honetan Sutegin. “Prest gaude!” antzezlan eskaintzera datoz.

“Grebana gaude!” antzezlanarekin arrakastaren zapora gozoa dastatu zuten. Emakumeari lotutako hainbat konturen inguruko emanaldi harekin, 60 plaza baino gehiago egin zituzten.

Duela bost urte izan zen hori. Arrakastaren ondoren, etenaldi bat egin zuten baina iaiztik martxan dira berriz ere Lakrikuneko hiru aktore hauek.

Alaitz Olaizola, Gurutze Eizmendi eta Idoia Uranga aktoreek osatzen dute Lakrikun antzerki taldea. Hirukote honek, 2003ko maiatzean hasi zuen agertoki gaineko bere ibilbidea.



AZARDAK 6 LARUNBATA, 19:00ETAN SUTEGIN. SARRERAK TXIRIBOGAN ETA NOAUA!N (NOAUA!KO BAZKIDEEK 3 EURO, NOAUA! EGOTITZAN ETA ALDEZ AURRETIKI).

2004ko Euskal Antzerki Topaketetan, Publikoaren Saria irabazi zuen.

“Grebana gaude!” lanean bezalaxe, oraingo “Prest gaude!” honetan ere emakumearekin zerikusia duten gaiak landuko dituzte. Umorearen bitartez, beti ere. Uztarria aldizkariari egindako

adierazpenetan, “guk bizi ditugun drama txiki horiek umorearekin landu ditugu”.

Eta euren drama txikiak ikuslearengana iristen dira, izan ere, Euskal Antzerki Topaketetako Ikuslegoaren Saria eskuratu dute berriz ere.

“Ornitorrinkus”

ez-ohikoa, besteren antzik ez duen ikuskizuna

Duela bi urte, dena prest zegoen Dema plazan. Oholtza, soinu ekipoa, artistak... Baina ekaitzaren ondorioz, bertan behera utzi behar izan genuen. Honakoan, Sutegin arituko dira Maialen Lujanbio, Judith Montero eta Xabier Erkizia. Esperimentazioa bide eta helburu duen ikuskizuna eskainiko digute.

NOAUA! Duela bi urte bertan behera utzi behar izan genuen zuen saioa. Arantza hori kentzeko aukera izango dugu azkenean, ezta?

Ornitorrinkus. Pena handia izan zen, dena prest genuen, Dema plaza den leku hain berezian eta... Aurten zorrak kitatu asmo ditugu.

Saioa Sutegin izango da, ordea, eta eguraldi ona badago, ba auskalo, akaso Dema plazari ere keinuren bat egingo diogu.

N. Orain arte Ornitorrinkusekin osatu duzuen ibilbidea laburbildu duzue disko-liburu honekin, ezta? Inbentario modukoa izan daiteke akaso?

O. "Inbentario" hitzari lizun usain pittin bat hartzen diot... Esango genuke, bai, bilduma moduko bat dela, eginiko bidearen erregistro sonoro eta paperezko bat. Orain lau urte hasi ginen lanean eta gauzak grabatzeari ekin genion. Pieza, soinu eta letra horiek eraldatu egin dira joanean, eta CD-liburuxka honetan bukatu moduko bat eman diegu, bestela artean ere eraldatzen joango ziren pieza horiei.

N. Esperimentazioa ez da ohiko jarduera gure artean. Eskaini dituzuen emanaldietan nolakoa izan da harrera, sumatu al duzue publikoaren aldetik "ezberdina" den zerbait ikusteko gogo?

O. Bitxia izan da ikustea, gutxien espero dezakezun jende tipoari adibi-



AZARDAK 7 IGANDEA, 19:00ETAN SUTEGIKO ERAKUSKETA BELAN.

dez oso gustoko egin zaiola; arraro beste batzuei, arraroegi; interesgarri zenbaiti... Denetariko sententzioak sortu dira. Baina bai, orohar esango

genuke jendeak estimatu duela zerbait ezohikoa, besteren antzik ez duena, izan dela arnas berri bat entzule batzuentzat.

Disko-liburua osatu berri dute

Maialen Lujanbio: Letrak eta ahotza.

Judith Montero: Saxofoi sopranoa, altua, tenorra eta baritonoa.

Xabier Erkizia: elektronikak eta zarak.

Ornitorrinkus musika garaikideak, elektronikak eta bertsoak elkar hartuta osaturiko hotsen eta ahotsen proiektua da. Saxofoiak, elektronikak eta ahotsak –a-priori elkarrengandik urrunak diruditen hiru jardunek– bakoitzak bere alorra arakatuz lehenik eta elkar eraginez ondoren, hizkuntza berri trinko bat sortzeko ahalegina da. Esperimentazioa bide eta helburu duena.

Ornitorrinkoa –ezaugarri itxura batean bateraezinak gorputz bakarrean biltzen dituen animalia–, irudi sinboliko bezala hartuta, sailka ezina denaz, izateaz eta izan ezinaz ari da Ornitorrinkus.



DISKO LIBURUA ARGITARATU BERRITAN ARITUKO DIRA SUTEGIN.

Jose Belmonteren marrazkiez eta Maialen Lujanbioren bertso eta testuez gain, Jakoba Errekondo, Joseba Sarrionandia, Xabier Erkizia eta Ixiar Rozasek idatzitako testu berriak ere biltzen ditu liburuak, soinu piezak abiapuntu hartuta espreski sortutakoak.

www.ornitorrinkus.org

“Off-On”, itzalean nahiz pizturik ibiltzeko aukera

Hitzak, Yolanda Arrietarenak izango dira; musika kolpeak, Juanxo Zeberio tolosar piano-jolearenak. Bi hizkuntza horiek, literatura eta musika, uztartuko dira “Off-On” emanaldian. Datorren aste-an izango da, azaroaren 13an larunbaterekin, 19:00etan hasita.

“Off-On” saioaren aurkezpen testuak hala dio: “Herriatik nator, tribuaren babespetik... Hirian ohartu naiz, bada, ni neu besteekin batera eta baita besteen presiopean garatzeko gune bat dela askatasuna, OFF gustuko batean egoteko geruza bat, OFF on batean egoteko toki bat, edota OFF eta ON, itzalean nahiz pizturik ibiltzeko aukera bat”.

Azaroak 13 larunbata, 19:00etan Sutegin.



YOLANDA ARRIETA, HAURREZ INGURATUTA. AZAROAREN 13AN SUTEGIN
ESKAINIKO DUEN SAIDA, ORDEA, HELDUENTZAT IZANGO DA.

Hitz Ahokoen tailerrak martxan dira

Eguneroko gatazka erantzune-tan trebatuz izenburupean, ikastaro sorta antolatu dute Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkarteak. Asteotan zenbait tailer abian jarri dituzte. Hezkuntza ziklo bakoitzeko hiru saio burutuko dira. Izar Arregi Aizpuru psikologoak zuzentzen ditu egunotan hasi diren tailerrak. Hona hemen datozen asteotarako hitzorduak:

Azaroak 17 eta 24 (asteazkenak):

17:00etan, HHko ikasleen gurasoentzat.

18:30ean, DBHko ikasleen gurasoentzat.

Azaroak 4, 11 eta 18 (ostegunak):

17:00etan, LHko ikasleen gurasoentzat.

Tokia: Agerialdeko erakina, ingelerako klasean, 1. solairuan.

Azaroaren 8an, odol ematea

Datorren astelehenean, azaroaren 8an, odola emateko aukera berri bat izango dugu. Usurbilgo Odol Emailek aditzera eman dutenez, ohitura den moduan, herriko anbulatorioan izango da, arratsaldeko 18:00etatik 20:30era: “herriar guztiei egiten diegu deia. Beti eskean gaude, baina beti odola behar delako”.

“Zuk zergatik ez?”

Hainbat eta hainbat gaixok arazo larriak izan ditzakete, gure elkartasuna azaltzen ez badugu bereziki. “Pentsa dezagun zenbat pertsona, ezagun edo ez, dauden erietxetan, odolaren premian. Nik odola ematen dut. Zuk, zergatik ez?”, galde egiten dute Usurbilgo Odol Emaileen elkarteak.

Erle Eguna, azaroaren 28an

Aste honetan bertan ospatu den XV. Artisau Azoka, ez da izango azaroan burutuko den estilo honetako ekitaldi bakarra, aurren, hil hau agurtuko baitu XII. Erle Eguna. Azaroaren 28an ospatuko da Erle Lagunak taldeko kideek antolatutako ekimena. Ohi denez, gozogintza alorreko produktuak saltzeko postuak jarriko dituzte. Euskal Herri mailako ezti lehiaketa ere burutuko da eta sari-tutako ezti potoeekin enkantea. Azaroko azken igande goiz pasarako hitzordua bada beraz.



Gaztelekua, ofizialki inauguratua geratu da

Ofizialki inauguratua geratu da Gazteleku berria, joan den larunbat arratsaldean, urriaren 30ean burutu zen ekitaldian. Gazteek frontoi ondoan zintzilikatu zuten piñata apurtu zuten lehenik. Eta gero, Gaztelekura abiatu ziren. Ate ondoan zegoen zinta moztu eta bertso bat abestu ostean, guztiak, hezitzaile eta gazteak barrura sartu ziren. Askari eta musika giro ederrean, larunbateroko hitzorduan murgildu ziren.

Inaugurazio ekitaldiaren ostean, Gaztelekua bertatik bertara ezagutze-ko aukera izango da asteburu hone-tan.

Azaroak 6 larunbata, ate irekien jardunaldia

Larunbatean, azaroak 6, ate irekien jardunaldia antolatu dute, goizez, 10:00-12:00 artean. Nahi duen orok instalakuntzak ezagutu eta hezitzaile-ekin hitz egiteko aukera izango du.



JOLASAK ERE EGIN ZIREN
IREKIERA EKITALDIAN.

Datorren astean, Ekozinemaldia

Usurbiltzen elkarteak antolatu du Ekozinemaldia. Helburua, zor ekologikoaren kontzeptuan sakontzea. Lehen egunean, azaroaren 11n osteguna, "Impactos de la forestación en Uruguay", "Niger ibaia" eta "Coconut revolution" filmak ikus ahal izango ditugu Sutegin. 19:00etan hasiko da proiektzioa.



"COCONUT REVOLUTION"
FILMEKO IRUDIA.

"The coconut revolution" filmak RTZ enpresak Bougainville irla txikian buruturiko hondamena du ardatz. Enpresa horrek munduko aire zabaleko kobre meatzerik handiena hondatu zuen irla horretan, baina bertako biztanleak enpresaren aurka matxinatu ziren. Papua Ginea Berriko

eta Australiako ejertzitoak eta beraien mertzenarioak garaitu zituzten. Gero irlan ezarri zuten blokeoari ere aurre egin behar izan zioten biztanleek. Azkenik, konpainiek utzitako material- ez baliatuz eta irlako baliabide aberatsak erabiliz, herriak sistema jasangarria garatu zuen.

Asteburu honetako pilota partidak

GIPUZKOAKO TXAPELKETA
AZAROAK 4 OSTEGUNA
Aginagan, 20:30ean
PALETA GOMA GIZONAK
(3. mailan)
USURBIL - LAGUNAK 2

AZAROAK 5 OSTIRALA
Usurbilen, 19:30ean
ESKUZ BINAKA NAGUSIAK
(3. mailan)
USURBIL - ILUNPE 1

ESKUZ BINAKA NAGUSIAK
(1. mailan)
USURBIL - AZKOITIA

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

piatxoak
ogitartekoak
piater konbinatuak

TABERNA

Irubiden aurkitzen da 36ko gerrako hobi komun bat

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzak hobi komunen mapa jarri du sarean. Justizia Sailaren webgunean –www.juspav.ejgv.euskadi.net– ikus daiteke. Tartean da Usurbilgo Irubideko hobia. Baina ez da gorpua lurpetik ateratzeko lanik egin oraindik.

Aranzadi Elkartek 2003an sinatu zuen Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailarekin hobi komun inguruko ikerketak egiteko akordioa. Prentsari egindako adierazpenetan, Aranzadiko Paco Etxeberriak zioen mapa hau urte hauetan egindako lanaren emaitza izan dela: “duela urte eta erdi hasi ginen mapa egiten. Honekin egiten dena legea betetzea da. Izan ere, Espainiako Memoria Historikoaren Legeak agintzen du mapa egitea”.

IRUBIDEKO HOBIAREN EGOERA

“Litekeena da bertan egindako obren ondorioz gorpuzkiak kontserbatu ez izana”

Mapa bakoitzaren atzean lan handia dagoela dio Aranzadik, hobi bakoitzaren inguruan txosten zehatz bat dago eginda: argazkiak, lekukoaren informazioa....

Urte askoren ondoren, hobiak lokalizatzea ez da lan erraza izan. Paco Etxeberriak adierazi duenez, “kontuan izan behar da 70 urtean asko aldatu dela hemengo geografia eta hainbat hobi ezingo ditugula sekula topatu. Izan ere, haiek zeuden lekuan gaur egun etxebizitzak, industrialdeak eta halakoak daude”.

Egia jakiteko eskubidea

Informazio horren berri ematearen garrantzia nabarmendu du Aranzadi zientzia elkarteak. “36ko biktimek eta



LUZURIAGA ENPRESAN SARTZEKO BIDEGURUTZEAREN EREMUA. ASFALTOAREN AZPIAN EGON LITEZKE LURPERATUTAKO GORPUAK.

haien senideek justiziarako, egin zaien kalteagatik ordaina jasotzeko eta egia jakiteko eskubidea dute. Halako ekimenen bidez eskubide horiek aitortu nahi zaizkie biktima guztiei. Orain espero dugu hobi horiek memoriarako eta oroimenerako leku bihurtzea”.

Horrekin batera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 1936ko gerran eta gerra ondorenean desagertutako eta fusilatutako pertsonen zerrenda ere kontsulta daiteke.

8.560 biktimaren izena jasotzen da zerrenda horretan oraingoz.

“Luzuriagako sarbidean, asfaltoaren azpian”

Kokalekua: Irubideko eremua.

Udalerrria: Usurbil, Gipuzkoa.

UTM koordenatuak:
X 579.775; Y 4.792.415; Z 54.

Hilobiaren ezaugarriak:
N-634 errepidean.

Aldez aurreko txostena:
